

**Erandio**  
**UDALA**  
**AYUNTAMIENTO**



**ERANDIOKO GIDA TURISTIKOA**





**ASTRABUDUA-LUTXANA p.4**

**LUTXANA-FAOETA-ERANDIOGOIKOA p.6**

**LANDA-EREMUKO ERANDIO p.10**

**ALTZAGA ARKITEKTONIKOA p.12**

**LUTXANA ARKITEKTONIKOA p.16**



## ERANDIO ZEHARKATZEN IBILBIDE ARKITEKTONIKO-INDUSTRIALAK

Erandiok ongi etorria eman nahi dizu, eta horretarako gida hau prestatzen aritu gara. Bertan gure udalerraren iraganeko eta gaurko historia ezagutzen erraztuko dizun hainbat ibilbide aurkezten dizugu: haren txoko-bazterrak, ezaugarriak eta istorioak. Lehenaldi industrialak eratutako udalerrria dugu; itsasadarra izanda erandioztarron jardueraren, ontziolen, aduanen eta merkatarien ontzien ardatz nagusia eta ikusle ixila. Horrek guztiak eraman du bertako bizilagunok harro sentiarazten gaituen olgeta-gune bilakatzeraino.

Aukeratu zure ibilbidea, zain gaituzu!

**IBILBIDE GEOLOGIKOA: AXPURU (HIRUGURUTZETA) p.18**

## ASTRABUDUA

## LUTXANA

Denbora: 2 ordu  
Distantzia: 8 km  
Zailtasun-maila: txikia

**Axpeko kaia:** XX. mendearen erdialdera izan zuen goieneko aldia, itsasadarrean industriak gora egitearekin batera; kai horretatik abiatzen zen ezkerrean zegoen Bizkaiko Labe Garaietara zihoan txalupa.

**Axpeko harrobi zaharra:** XIX. mendearen amaieran, erazketetatik ateratzen zena, besteak beste, Altzaga auzoaren zati bateko betelanak egiteko eta itsasadarra bera bideratzeko erabiltzen zen. XX. mendean, Metalquímica del Nervión enpresa kokatu zen bertan; pirita-erantsak baliatzen zituen Estatuko lehen lantegia izan zen, eta lehengai horrekin, kobre-kontzentratuak eta burdin-mineral aberastua lortzen zituzten. Materiala kargatzen zuten ontzientzako zamalanetarako kaia eraiki zen; materiala aireko uhal garraiatzaile batean iristen zen, errepidea zeharkatuta. 1991. urtean utzi zion lan egiteari. Orduan, Estatuko lehen deskontaminazio-jarduna egin zen: instalazioak eraitsi ziren, eta metal astun eta sulfatoz kutsatutako 12.000 tona lur baino gehiago kendu zituzten, batik bat, kobreak, zinkaren eta artsenikoaren kontzentrazio handiekin. Gaur egun, toki horretan industrialde bat dago, eta harrobi zaharraren hormetan belatzak ikus daitezke.

**Frailea haitz-punta:** Nerbioi itsasadarra Bizkaiko merkataritza-jardueraren ardatza da Erdi Arotik. Garai haietan, ibaian zehar nabigatzea oso arriskutsua izan zitekeen zenbait tartetan, eta tarte zailenetako bat Axpeko kurba zen; izan ere, Frailea esaten zaion haitz-punta ezkutuan geratzen baita itsasgoran eta istripu ugari eragiten zituen. 1630. urtean, Felipe IV.ak aginduta, inguru hori balizatu egin zuten inork hondoa jo ez zezan. Eta 1882. urtean, Portuko Obren Juntako zuzendari Evaristo Txurruka jaunak behin betiko konponbidea ezarri zuen, Frailea hartzen duen ubideratzeko dikea sortuta. Axpeko dartsena sortu zen, 540 metroko dikearekin eta amarratzeko buiek. Hartara, Txurrukak Axpeko kurba leuntzea lortu zuen, eta nabigatzaileei hainbeste buruhauste eragin zien itsasadarren zati hori ubideratu zuen.

**Ontziola:** 1941. urtean Tomás Ruiz de Velasco jaunak sortu zituenetik martxan egon dira, eta ia 500 langile ere izan zituen 40.000 metro<sup>2</sup>-tan. Zeharkako uretaratzeak dira deigarrienak.

**Erandioko ontziraiekua:** Egunduz du garai onena bizi, baina lehengo mendearen amaierara arte langile ugari abiatzen zen bertatik siderometalurgiako lantegi handietaraino txalupaz joateko itsasadarra zeharkatuta; herritarrek ere asko erabiltzen zuten, gaur egun Nerbioi ibaia zeharkatzen duten zubi ugari horiek eraiki baino lehen. Aspaldiko garaietan, errepidez igarotzen edo kaian lehorreratzen ziren produktu eta salgaiak kontrolatzeko aduana ere egon zen bertan.

Ontziraiekutik hegoaldera, ibaiertzean XIX. mendearen hirugarren laurdenetik aurrera eraikitako hainbat eraikin daude —esate baterako, “**Cooperativa el Siglo**” **etxebizitza-eraikina**—, baita eraikin berriagoak ere.

Halaber, Erandioko industria-aroaren hasierako, hau da, XIX. mendearen hasierako eragin ingelesa ere suma daiteke **Siemens Institute** eraikinean; herrira iristen ziren merkataritza ingelesak bertara joaten ziren aisialdian.

Itsasadarren ertzetik jarraituz gero, industria-jardueraren arrasto gehiago aurkituko ditugu, hala nola, **Babcock** enpresa zegoen lursaila eta lehen ontziola industrial sortu zen tokia: **Astilleros Ardanaz**; 1917. urtean Rafael Olazabalek sortu zituen, eta geroago **Astilleros Celaya** bihurtu zen; aurrerago ASTACE izena zuen. Proiektu enblematikoak gauzatu zituen, hala nola, Guayas eskola-ontzia.

Horren ondoan, Westinghouse eraikin zaharra; bertan, hozkailuak, garbigailu automatikoak, airea girotzeko gailuak eta lisaburdina elektro-automatikoak egiten zituzten, baita automobil eta autobus elektriko baten prototipoak ere.



Aurrerago joanda, Asuako eta Nerbioiko itsasadarrek bat egiten duten tokian **Lutxanako zubia** dago; toki estrategikoan kokatuta dagoenez, Bilbora sartu aurre-aurretik, hainbat gerratan suntsitu izan dute; 1. Gerra Karlistan (1836), esaterako, Lutxanako Guduaren kokaleku nagusia izan zen liberalen eta karlisten artean; liberalek beste ertzetik zeharkatu behar izan zuten eta karlistek, aldiz, Montecabras, Sanpablomendi eta Banderas mendietatik defendatzen zuten euren posizioa. Azkeneko aldiran, zubi azpitik igarotzen diren ibaietako urek gora egin eta uholdeak izan zirelako eraitsi zen.

LUTXANA

FAOETA

ERANDIOGOIKOA

Denbora: 3 ordu  
Distantzia: 15km  
Zailtasun-maila:  
ertain-handia

**La Internacional pintura-lantegian** hasten da ibilbidea; eraikina 1923. urtekoa da baina gaur egun auri-egoeran dago (ikus LUTXANA ARKITEKTONIKOA).

Herrigunea zeharkatzean interes historikoa duten etxebizitza multzoak ikusiko ditugu ibilbide osoan (ikus LUTXANA ARKITEKTONIKOA).

Aurrerago, **Lutxanako eskola zaharrak** aurkituko ditugu; 1924. urtean egin zituzten (ikus LUTXANA ARKITEKTONIKOA).

Enekurira igo baino lehen, **Ariño txaletak** ikusiko ditugu (ikus LUTXANA ARKITEKTONIKOA).

Enekurira igotzeko aldapa luze eta handia igotzen hasi garelarik, eskuinaldean **Montecabras** mendia ikusiko dugu: XIX. mendeko hainbat unetan kokagune estrategikoa izan zen, bertatik zelatatzen baitzuten ibaiko trafikoa eta Lutxanako zubiaren pasabidea; halaber, tropa karlistek bertatik defendatu zuten Bilboko blokeoa, tropa liberalerik eraso eginez Lutxana hartzean, 1836ko abenduako gudu ezagunean.

Enekurira iritsita, Emiliano Amann arkitektoak egindako **Fatimako Andra Mariaren eliza** (1952-4) bisita dezakegu. Elizarekin batera diseinatu ziren apaiz-etxea, baita lanbide-eskolako eta parroikia-eskolako klaseak ere. Mila bat eliztar hartzeko planifikatuta zegoen. Bitxikeria bat: kanpandorrea eraikin nagusitik berezita dago: erlijio-arkitektura bizkaitar berriaren adibide garbia da, erreferentzia historizistak ia desagertu egiten direla.

Enekuri auzotik, 225 metroko altuera duen **San Bernabe** mendira igoko gara; **Sanpablomendi** ere esaten zaio, Faeta auzoan beheago dagoen ermitaren izenarengatik (zenbait argitalpenetan San Bernabe ermita dela agertzen da). Toki horretatik Nerbioi itsasadarreko industrialdearen zati handiena ikus daiteke, baita Lutxana, Enekuri, Kukularra, Arriaga, Faeta, Asua eta Erandiogoikoa auzoak ere, hau da, ia herri osoa eta Txorierrri harana, aurrez aurre Loiuo aireportua duela.

Toki horretan bertan **San Pablo gotorlekuaren aurriak** daude; lehenengo karlistaldian, Erandioko historia osoko egunik odoltsuenaren lekuko mutu izan zen. 1836ko abenduaren 24an, arratsaldean, Espartero jeneralaren tropek Cabras mendia hartu eta itsasadarraren ezkerrekin komunikazioak bermatu ostean, San Pablo gotorlekuari egin zioten eraso, Bilbora sartu aurretik geratzen zen karlisten azken eragozpena baitzen; hurrengo egunean liberatu zuten Bilbo.

Handik Faeta auzora jaitsiko gara. Bidean **San Bernabe ermita** aurkituko dugu (jatorrizko izena San Pablo izan zen). XVI. mendeko herri-estiloko eraikina da, bi isurkiko estalkia eta harlangaitz-hormak dituena. Lehenengo karlistaldian arte, ermitan San Bernaberen eta San Pabloren estatuak zeuden, baina ostu egin zituzten. Elizak kalte handiak izan zituen karlistaldian, eta material asko San Pabloko gotorlekua eraikitzeko erabili zuten, muinoaren gainaldean. Erandioko ermitarik garrantzitsuenak izan zen, eta Andre Mariaren elizari atxikitako parroikia ere izan zen. Herriko ermitarik zaharrena da.





Leurako errota



Hilerri zaharra



LUTXANA

FAOETA

ERANDIOGOIKOA



Andra Mariaren eliza

Ermitatik behera goazela, **Faoeta auzoa** zeharkatuko dugu; herriko herrigune zaharrenetako bat da, XVII. mendeko baserriak baitaude bertan (Zarraga edo Labekoa). **Asua** auzora iritsiko gara; Behe Erdi Aroan, Asuako errege-portua gakoa izan zen Bizkaiko barnealdean produzitutako burdina Kantauri itsasora heltzeko, eta itsasadarrak XIX. eta XX. mendeetan izan zuen industria-kokagunearen aurrekaritzat hartzen da.

Bidean aurrera egin eta **Leurako errota** zenaren ondotik igaroko gara; 1582. urteko iturrietan jada aipatu zen errota hori. Azken errotaria Vicente Gaztañaga izan zen, eta 1955. urtean hil zenean, errotak ez zuen lan gehiago egin. Gaur egun, kontserbazio-egoera oso txarrean dago.

Bideari jarraiki **Erandiogoikoa** auzora iritsiko gara; Erandioko herrigune garrantzitsua izan zen industria-arora arte. Udaletxe eta eskola zaharrak aipatzeko modukoak dira; Casto de Zabalak egin zuen horien proiektua 1889. urtean, herriaren erdigune administratiboa izateko asmoz. Hilerri zaharra ere hortxe dago; portada Francisco Ciriaco de Menchacak diseinatu zuen 1881. urtean.

Zalantzarik gabe, obra historiko-arkitektoniko garrantzitsua **Andra Mariaren eliza** da; XV. mendearen amaierako tenplu gotikoa da, burualdea eta gurutzadura izan ezik (XVII. mendekoak dira), baina hainbat aldaketa ere izan ditu.

Eraikinak mailakatutako hiru nabe eta lau atal ditu, gehi gurutzadurakoa eta kapera nagusia. Zati zaharrenaren euskarriak zutabe sortakatuak dira. Gangek nerbioak dituzte, eta aurrealdean igeltserotza-sistema. Hiru portadak ere fase gotikokoak dira: arkibolten formulazio puntadun soilak eta kapitel lisoak dituzten kolomatxo ukondotuak.

Oinaldeko horman hustutako arkosolio puntadun batean, Martín Ortiz de Martiartu jaunaren eta haren emaztearen, Mayor de Zamudio, hilobia dago, bien harrizko busto eta guzti.

Inskripzio batean irakur daiteke figura etzanak nortzuk diren, eta oheko armarren bitartez haien leinuak identifika daitezke.

## LANDA-EREMUKO ERANDIO

Denbora:  
3 ordu 15 min  
Distantzia: 13,5 km  
Zailtasun-maila:  
ertain-handia

**San Cristobal ermita;** Goierri auzoan dauden hiru ermitetako bat da. Eraikina gehienbat barrokoa da, XVII. mendekoa, baina 1957. urtean azken aldaketa egin ostean, jatorrizko egituratik iparraldeko horma baino ez da geratzen. Antzina, abuztuko lehen igandean ospatzen zen egun handia, baina gaur egun, uztailaren 10ean izaten da. Handik berrogeita hamar bat metrotara **La Magdalena** ermita dago, baina santutxo edo gurutzoki bat baino ez da, gurtzarako toki txiki bat; 13 metro koadro inguru ditu eta iragaitzazko bidaiariak otoiz egiteko edo eskaintzak uzteko tokia izan zitekeen. Behinola, handik igarotzean txanpon bat botatzeko ohitura omen zegoen.

Elizateek garai batean izan zuten eginkizuna uler dezakegu, baserriak sakabanatuta baitzeuden.

Errepidean aurrera eginez gero, **Goierriko eskola zaharren** ondokigara; Juan Carlos Guerra udal-arkitektoak egin zuen eskola horien diseinua 1932. urtean, herriko beste hainbat eskolaren kasuan bezalaxe –Asuakoak eta Arriagakoak, esaterako–. Eraikin horretan estilo neoeuskalduna berrikusi egin zen art déco moduan, arrazionalismora hurbiltzeko. Hormetan, agerian dagoen harlangaintza nabarmentzen da.

Handik **Martiatutorrea** ikustera joango gara; bizitzeko eta defentsarako eraikina da eta eraiki zenetik bizi izan zen jendea bertan, hutsik geratu zen arte. Dorretxeek ganboarren eta oinaztarren arteko leinu-gerrak dakarzkigute gogora; Bizkaiko feudalismoaren garaiko funtsa izan ziren eta Euskal Herriko historia eratu zuten hainbat mendetan. Dorrea toki estrategikoan kokatuta dago, eta Plentziatik Bilbora arteko ibilbidea ez ezik, barnealdeko beste ibilbide batzuk ere kontrolatzen ditu. Eraikuntzari erreparatuta, inguruko beste familia batzuekiko abantaila militarra zutela ikus daiteke, baita botere ekonomiko eta soziala ere, eta hortaz, garrantzi politiko handiagoa zeukala inguruko sistema feudalaren barruan. Hormetako hareharrizko blokeetan Aro Tertiarioko itsas-jatorriko fosilak aurki daitezke.

Dorretik aurreraxeago Goierri auzoko hirugarren ermita dago: **Paduako San Antoniorena;** ekimen pribatuaren bidez eraiki zen Martiatutorreko jabeek gurtza egiteko, Juan Ortiz de Asúa Guecho eta Martiatu jaunak testamentuan ermita bat eraikitzeke agindu ostean. Hortaz, haren seme eta ondorengo Diego de Asua Guecho y Martiatu jaunak eraiki zuten. Armariaren azpiko inskripzioan honako hau irakur daiteke:

“ESTA ERMITA HIZO HACER POR SU DEBOCION D. DIGº DE ASVA GVECHO y MARTTU.  
DVEÑO I SR. DE LAS MISMAS CASAS SIENDO DIPUDO DE VIZª EL AÑO DE 1658.”

Bidean atzera eginez, **Gobelaerrot**a (edo Gollorta) baserria aurkituko dugu; antzina, errota bat zegoen bertan eta Urederra errearen ura baliatzen zuen, **Bekoerrot**a baserriatik (metro gutxira zegoen, eta errota izan zen) abiatzen zen harlangaitzez egindako akueduktu goratu txiki baten bidez. 1896. urtean Villarriaseko markesa zen jabea, Martiatutarren leinuko ondorengoa. 1968. urtera arte aritu zen lanean.

Goierriin, XVII. mendeko eta lehenagoko baserrien sorta handiena aurki daiteke; baserri batzuk aurre-egoeran daude, baina beste batzuk ongi kontserbatzen dira. **Etxatueta** baserria (Itxuta/Ituta ere esaten zaio) gaur egun aurre-egoeran dago, eta aurrez aurre **Askorbeasko**a baserria du. Bai bata, bai bestea, inguruko zaharretakoak dira eta Ugartera joateko bidegurutzean kokatuta daude.

Ugarte (“uharte” hitzetik dator, hau da, bi urguneren artean kokatutako eremua; izan ere, auzoa Urederra eta Arruinaga errearen artean kokatuta dago, eta garai batean garrantzitsuak izan ziren) alderako bidetara jarraiki, Erdi Aroko bi dorrearen aztarnak aurkituko ditugu. Dokumentazio oso gutxi aurkitu da dorre horien jatorriari edo xedeari buruz, baina ez litzateke harrizkoa izango Martiatutorrearekin lotura izatea, nahiko gertu baitago. Dorrerik zaharrena –**Goiko Torre**– XV. mendekoa da eta pentsatu izan da izaera militarra zuela, Ugarte-Urbe bidean kokatuta dagoelako, dela defentsarako, dela bidesaria kobratzeko; izan ere, gezileiho ugari ditu oraindik ere, eta jatorrizko sarrera hegoaldeko aldean du, goratuta. Alabaina, XVI. mendeko **Beko Torre** nekazaritza eta abeltzaintzarako eta bizitzeko erabili zela uste izan da.



San Cristobal Ermita



Paduako San Antoniorena

## ALTZAGA ARKITEKONIKOA

Denbora: ordu 1  
Distantzia: 0,5 km  
Zailtasuna: txikia

Altzagako ibarraren urbanizazioa 1860. urtetik 1900. urtera bitarte gertatu zen, José María Jadoren orubeak urbanizatzen hasi zirenean eta Nerbioi itsasadarraren ondoko zirga bide zaharra konpondu zenean, errepide bihurtzeko. Bilboko itsasadar osoan metropoli-eremua sortu zen, eta industriaren ondoan eta industriari esker handitu zen eremu hori; hain justu, urte horietan hasi zen industriaren goraldia. Lehenengo industriak ezartzen hasi aurretik, herri asko –Erandio, esaterako– bizitegiak baino ez ziren, itsasadarraren beste ertzean lan egiten zuten langileentzat. 1900. urtetik aurrera hasi ziren industria handiak herrira iristen, eta orduan, landa-eremuko elizate izateari utzi eta herrigune nagusia Erandio-goikotik Altzagara igaro zen.

Altzagako arkitektura garaikidearen bilakaeran bialdi bereizi behar dira: Lehenengoa 1835etik 1936ra bitarte, formalismo eklektikoarekin hasi eta apaingarri gabeko eraikinen arrazionalismoarekin amaitzen dena; eta bigarrena Gerra Zibila Bizkaian amaitu zenetik (1937), berriro ere hasierako urteetako tradizioa eginez atzera, baina estilo abangoardistagoko eraikinekin amaitu zen.

Bisitaldia Erandio industrialaren bereizgarri den **Tartangako ikuztegia** hasiko dugu; 1893. urtean inauguratu zuten, herrian lehorte garrantzitsua izan ostean, eta lehorte horren ondorioz, Udalak hainbat neurri hartu zituen ur-hornidura bermatzeko. Hartara, ur horiek baliatu zituzten auzotar askok arropa garbitzeko aukera izan zezaten, etxean ezin baitzuten garbitu hornidura-zerbitzua oso eskasa zelako eta etxebizitza askok gabezia ugari zituztelako. XX. mendeko 70eko hamarkadara arte martxan egon zen ikuztegia.

Tartanga inguruan gabiltzala, estilo neoeuskalduneko **etxe merkeak** aurkituko ditugu. “**La Esperanza**” **Etxe Merkeen Kooperatiba** 1923ko ekainean eratu zen, eta bazkide gehienek Sociedad Española de Construcciones Navales sozietatean lan egiten zuten. Garai hartan udaleko arkitekto zen Ángel Líbanok egin zuen etxeen proiektua. Erandion langileentzako etxe gutxi zeuden, eta jendea pilatuta bizi zen 30 bat urtez; arazo horri erantzuteko sortu ziren Etxe Merkeen kooperatiba horiek. Hein batean, burgesen etxearen ideala langile-klaseari egokitzeko modu bat zen etxe merkeen proiektu hori, baina ez zuten kontuan izan helburuak ez zirela berdinak.

Itsasadarraren errepidetik aurrera egin eta herriko industrialdera iritsiko gara; ezkerretara hartuz gero, arrantza-enpresa, ontziola eta industria-tailer zaharren artean **Industrias Aguirenaren** eraikina topatuko dugu; Alfredo Palomarrek egin zuen eraikin horren proiektua 1953. urtean, eta 50eko hamarkadako modernotasun-proposamen interesgarria dela esan

dezakegu, leiho etzan handiekin eta sarrera nagusian arkupe monumental klasizista bat duela. Urteak joan, urteak etorri, CENEMESA enpresak Aguirena xurgatu zuen, eta eraikin horretan egin zuten Espainiako hodi alternadore handiena, 1969. urtean.

Aurrerago, 1900. urtean eraturako **Sociedad Franco Española** topatuko dugu. Filiberto Bonvillain ingeniari frantsesak diseinatu zuen eraikina. Enpresan meatzaritzarako, zubietarako eta bestelako industrietarako altzairuzko kableak egiten zituzten eta, arian-arian, sektorean aitzindari bihurtu zen. 1939-1967 aldian, Manuel eta Carlos Castellanosen erreforma arrazionalistak egin zituzten, eta eraikina biluztu egin zuten, leiho etzanen ilarekin zulatuta.

Aurreraxeago garai bateko Erandio urbanoa topatuko dugu, zirga bide zaharra baliatu eta leheneratu ostean sortutako errepidearen inguruan eraikitakoa; errepide horrek gaur egun



Tartangako ikuztegia



Udaletxea



Koop-La Esperanza



San Agustín eliza

## ALTZAGA ARKITEKONIKOA

ere trafiko handi samarra izaten du. Horrela, bada, batik bat, langileentzako etxeak sortu ziren eta etheen behealdeetan enpresa eta tailer txikiak kokatu zituzten. Gainera, 1885. urtetik aurrera, Jado familiak Obieta eta Urdaneta kaleen arteko urbanizazio partziala sustatu zuen. Urtebete lehenago Erandiogoikoa eta Altzaga lotzen zituen bidea txukundu zuten, eta bi urte geroago trenbidea iritsi zen herrira; eta handik gutxira, edateko ura eta saneamendua bideratzeko proiektuak gauzatu hasi ziren.

Erandioko alde horretan nabarmentzeko moduko lehen eraikina Antonio Araliceren **etxebizitza-eraikina** da, 1929koa, balkoi neobarroko bereziak dituela. Aurrerago, langileen etxebizitza gehiago ikusiko ditugu, hala nola, Raimundo Berazarena (1903); estilo eklektikoa du, baina apaingarri oso bereziak ditu: ordena erraldoiko pilastrak, azpadura-moldurak baoetan eta diseinu landuetako burdinak balkoietan.

Errepidearen alde honetan estilo arrazionalistako beste eraikin bat ere ikus dezakegu, garaikideagoa; Rafael Fontánek diseinatu zuen 1940. urtean, eta kromatismo erakargarria du, adreiluzko plaketarekin eta kremazko itzukuarekin lortuta. Aurrera eginez gero, **El Siglo kooperatibaren etxebizitza-eraikina** topatuko dugu; Martín Luciano Echevarriak egin zuen proiektua 1873an eta 1928. urtean Luis Arana Goirik erreformatu zuen: ordena erraldoiko pilastrak, anagrama jartzeko frontoi berezia eta balkoi neogotikoak.

Auzoan barrena goazela eraikin interesgarri gehiago ikusiko ditugu, hala nola, Juan Carlos Guerraren 1932. urteko etxebizitza-eraikina, art deco estilokoa. Eraikin hori art deco estiloaren adierazgarriena da auzoan, masa biluzien enfasiekin eta kareletako eta balkoi erdi-zirkularretako burdinen diseinu delikatuekin.

Parez pare 1901. urteko **musikaren tenpletea** aurkituko dugu –burdina oso landuta du–, baita **Udaletxea** ere, **Casto de Zabala** udal-arkitektoak diseinatutakoak. Udaletxea 1895. urtean proiektatu zuen (1991. urtean berritu zuten). Eraikinaren estiloa eklektikoa da, eta pilastra monumentalak ditu, kapital landuekin. Hiru gorputzeko eraikin mistoa da: erdikoan egoitza administratiboa dago, eta albokoetan, haurren eskolak. 1929. urtean, Angel Libanok handitu egin zuen beste solairu bat erantsita. Gaur egungo itxura 1991. urteko berritze-lanen ondorio da.

Casto de Zabala berak egin zuen hurrengo eraikin modernista ere, 1909an; diseinu ausarta du, burdina lerromakurrekin.

Obieta kalean aurrera eginez, Manuel Olascoagak 1890. urtean diseinatutako eraikina topatuko dugu. Olascoaga arkitektoak hainbat enkargu pribatu izan zituen herrian XIX. mendearen amaieran. Esaterako, eraikin eklektiko fin hau, apaingarri oso zainduak, burdinak balkoietan, pilastra ildaskatuak eta landare-itxurako motiboak dituela.

Erdigunean dago, halaber, **Udal Merkatu zaharra**, German de Aguirrek 1960. urtean diseinatutakoa. Berrogeita hamarreko hamarkadako arkitekturaren adierazgarri da: isurialde bakarreko ageriko hormigoizko estalkia, leiho handiak, egitura (habeak) agerian, eta sarrera nagusia babesten duen hegal-lauza. Garai batean herriko merkatua zegoen bertan, baita postetxea (Correos y Telégrafos) eta sorospengela ere, baina gaur egun beste gauza batzuetarako erabiltzen da.

Handik gertu **etxebizitza-eraikin** gehiago ikus ditzakegu; esate baterako, Santos Zunzunegui 1935. urtean egin zuena –estilo arrazionalista du eta espresionismoaren eragina suma daiteke dorre angeluarrean, hodi biribileko barroteetan eta balkoien gorputzetan, kontraste kromatiko interesgarriak dituztela–, eta Julio Sáenz de Baresek 1927. urtean egin zuena. Azken hori Sotero Zubiaur merkatariak eskatuta egin zen eta estilo erregionalistari jarraitzen dio, art déco ukituekin. Baoetako azpadura nabarmentzen da, insprazio neobarrokoa dutela, batik bat, sarrera nagusian. Dekorazio geometrizatzailea du, art déco estiloaren eraginarekin. Erandion egindako etxebizitza-eraikinen artetik, hormigoi armatua erabili zuen lehenengoetakoa izan zen.

Altzaga auzoko eraikin berezietako bat **San Agustín eliza** da; German Aguirrek diseinatu zuen 1975. urtean. Nazioarteko abangoardiako eraikina da: ageriko hormigoizko arkitektura argi eta garbi erakusten du eta alderdirik bereizgarriena estalkia da: azalera erregulatuko paraboloiden hiperbolikoa da, hau da, hormigoizko lauza, eta teilatua ere bada.

Gaur egungo metroaren lineari dagokionez, Erandion egin zen lehen lurpeko **metro-geltokia**. Francisco Javier Saenz de Oizak diseinatu zuen 1988an. Eraikin zilindriko horrek diseinu postmodernista du eta sarbidea beirazko gorputz batekin amaitzen da, frontoi triangeluarrek gogorarazten dituela.

Azkenik, Luis de Arana Goirik 1935. urtean diseinatutako etxebizitza-eraikina aipatuko dugu; arrazionalismo espresionistari jarraitzen dio. Alaka lerromakurra eta hori nabarmentzen duten terrazako barrote kurboak dira elementu nabarmenenak. Leiho etzanak ditu, eta itzukuaren eta adreiluzko plaketaren arteko konbinazioa da nabarmentzekoa.



## LUTXANA ARKITEKTONIKOA

Denbora: ordu 1  
Distantzia: 0,5 km  
Zailtasuna: txikia

Lutxana auzoko bisitaldia hasteko, **Ariño txaletak** ikusiko ditugu; Casto de Zabalak 1911. urtean diseinatu zituen familia bakarreko etxe xume horiek, baina gaur egun etxe bakarrak baino ez du gordetzen hasierako estilo eklektikoa, suitzar cottage-ean oinarrituta.

Aurrerago, **Lutxanako eskola zaharrak** daude. Angel Libanok egin zuen proiektua 1924. urtean, eta Pedro Ispizuak 1931. urtean berritu zituen; gaur egun gizarte- eta kultura-erloto erabilera dute, baina hasieran auzoko gazteen eskola zen. Eskolen ondoan, langile-etxebizitzaren eraikin multzo bat aurkituko dugu, estilo eklektikoa duen etxebizitza-erakin bat, baita La Estación jatetxearen art decó estiloa ere.

Handik metro gutxira **Compañía Española de Pinturas La Internacional konpainiaren etxebizitza-multzoa** dago; Félix Iñiguez de Onzoñok diseinatu zituen 1959an, eta, beste hainbat kasutan gertatu zen bezalaxe –batik bat, lehengo mendearen erdialdeko urtetan–, herrian kokatutako enpresa batek eraiki zituen etxebizitza horiek, lantegiko langileentzat.

Lutxanaren erdigunean, dekorazio zeramikozko tailer zaharra izan zen eraikina aurkituko dugu: **La Cocinal** Manuel Amannek eta Calixto Emiliano Amannek diseinatu zuten 1918. urtean, eta azulejoak oso egoera onean ez dauden arren, modernistak direla ikusten da argi eta garbi.

Hortik itsasadarraren errepidera aterako gara eta bertan Daniel Escondrillasek 1904an diseinatutako **etxebizitza-eraikina** aurkituko dugu; txikiak dira, baina hiru logelakoak ere badira, eta herrian industria-aroarekin batera etorkinak iristen hasi zirela adierazten du. Toki berean Lutxanako ontzirelaka ikus dezakegu; 1940. urtean eraiki zen estilo abangoardistari jarraiki, baina gaur egun ez da erabiltzen, industriak gainbehera egin duelako.

Handik herrigunetik irten eta Altzagarantz abiatuz gero, **Compañía Española de Pinturas La Internacional** konpainiaren eraikina topatuko dugu; 1923. urtetik 1996. urtera bitarte aritu zen lanean, baina gaur egun aurri-egoeran dago. Bizkaiko arkitektura industrialaren estilo eklektikoko eraikina da eta izen bera zuen enpresak jardun zuen bertan; pinturak, korrosio-kontrakoak, bernizak eta antzeko produktuak saltzen zituen Espainian eta jabea “The international Paint and Compositions Co.” enpresa zen (Londres, 1881).

Plaiabarri inguruan, Germán Aguirrek eta Hilario Imazek 1955ean diseinatutako Ibañez de Betolaza etxebizitza multzoa ikus dezakegu. Marcelino Ibañez de Betolazak hodi-lantegi bat zuen eta haren alargunak agindu zuen eraikin hori eraikitzeko, langileentzat.

Inguru horretan daude, halaber, Oquiñenak eta Ryanek 1950-1952 aldirian diseinatu zituzten hiri-inguruko garraiobideen eta trenen kotxe-tokiak.

Asua ibaia zeharkatzen badugu, Luis de Aranak 1930. urtean diseinatu zuen estilo neoeuskalduneko familia bakarreko etxebizitza bat aurkituko dugu.

Handik Enekuri aldera abiatuta, 1914. urtean Calixto Emiliano Amannek diseinatutako **transformazio-zentrala** ikusiko dugu, Vienako modernismoaren eragina duena; aurrerago, Enekuriko gainerantz joanda **Fatimako Andra Mariaren eliza** aurkituko dugu; Calixto Emiliano Amannek diseinatu zuen eta 1952. urtean eraikitzen hasi bazen ere, bi urte geroago inauguratu zuten. Elizarekin batera diseinatu ziren apaiz-etxea, baita lanbide-eskolako eta parroquia-eskolako klaseak ere. Mila bat eliztar hartzeko edukiera zeukan, eta garaiko bitxikeria bat ere aipatuko dugu: kanpandorrea eraikin nagusitik bereizita dago. Erljio-arkitektura bizkaitar berriaren adibide garbia da, erreferentzia historizistak ia desagerturik.

Auzo honetan estilo neoabangoardistako eraikin interesgarriak ere ikus ditzakegu: Javier Rodriguez Ortiz de Záratek 2005ean diseinatutako **Fatima bulego-eraikina**, eta Juan Carlos Guerraren 1942ko **San Pablo etxebizitza multzoa**; estilo neoeuskaldunaren ezaugarriak aurki daitezke bertan, hala nola, ageriko harlangaitz-hormak, baoen azpadura zuriak eta hegal zabaleko estalkiak, lur-sailari atxikita.



Eskola zaharrak



Fatimako Andra Mariaren eliza

## IBILBIDE GEOLOGIKOA: AXPURU (HIRUGURUTZETA)

Denbora: 3 ordu  
Distantzia: 15 km  
Zailtasuna: media-alta

Axpe mendiaren beheko aldetik, egungo industrialdearen aparkalekuan –harrobiko lurrak okupatzen dituen zatian–, **sumendiaren nukleo trakitikoa** ikus daiteke; izan ere, harrobiak, hein batean, **arrokazko mendigunearen** zati handi batean luzetarako ebaki bat egin baitzuen.

Eraldatu gabeko arroka eta blokeak ere badira oraindik, eta horma horiek malkartsu goratzen dira, bertikalean. Aparkalekuaren inguru hori abiapuntu oso egokia da, konplexura erraz iristeko aukera ematen baitu eta arroka horren profil luzea ezin hobeto ikusteko aukera ere bai.

Harrobiko aparkalekuaren amaieratik Altzagara abiatuta, trenbidearen ondoan, **Axpe mendiaren** hegaletarantz doan bide aldapatsua hasten da. Berehala 60 bat metroko altuerara iritsiko gara, eta handik ikuspegi ederra izango dugu. Bide horrek bat egiten du konplexuko gainerako bideekin, eta **arroka bolkanikoen eta koladen multzo bat** zeharkatzen du; multzo horrek jatorrizko egoerari eusten dio, ez baitago harrobiko erauzketa-lanen eraginpean. Azken 20 urteotan (Metalquimica itxi ostean) sortutako landarediak inguruaren fisonomia aldarazi du; lehen lehorra zen eta ez zegoen ia landararik eta, horri esker, kolada handi bat argi eta garbi identifika zitekeen gurutzetik gaur egungo metroaren trenbideetara bitarte.

Bide hori **kraterrera** iristen da eta inguratu egiten du; kraterrak **kono** aldapatsu bat osatzen du, eta ikusi egiten da. Puntu hori igarota, eskuinera doan lehenengo bideari jarraitzen badiogu **Axpe–Axpuru mendiaren (Hirugurutzeta)** gailurrera iritsiko gara, eta han gurutzeen azpian dago **kraterra**. Tamalez, kraterraren jatorrizko egoera aldatu egin dute, lurrez bete baitute telefoniako antena bat jartzeko. Betelan hori egin aurretik, kraterraren sakonunea erraz identifikatzeko modukoa zen.

Behera jaisteko garaian, lehenengo puntura itzultzea komeni da –**konoa eta kraterra**–, eta parkeko harrobiaren gaineko bideetan barrena ibiliz gero, ibilbidearen ia puntu guztietan ikuspegi bikainak izango ditugu.

Harrobiaren goiko ertzetik gabiltzala, **Kuaternarioko terraza** horretara abiatuko gara eta ebakia edo sekzioa ikusteko aukera izango dugu Astrabudura igotzeko errepide zaharrean –gaur egun oinezkoentzako da–; hantxe amaituko da gure ibilbidea.

Inguruetan dauden **sumendi-bonbek** ongi adierazten dute garai batean hemen erupzioak izan zirela. Astrabuduko futbol-zelaia egiten ari zirenean hainbat tonatako sumendi-bonbak lokalizatu zituzten. Bomba horiek, zorionez, gorde egin zituzten eta futbol-zelaira sartzeko biribilgune txikian daude, apaingarri.



Axpe mendiko Hirugurutzeta



Sumendi-bonbak

## TURISMO BULEGOA / OFICINA DE TURISMO

BEKOA IKASTETXEA  
Desanexio kalea, 4 - 48950 ERANDIO  
T. 94 417 56 16  
F. 94 467 06 18

### Neguko ordutegia / Horario Invierno

Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes: 09.30 - 13.30  
Astelehenetik ostegunera / De lunes a jueves: 16.00 - 18.00

### Udako ordutegia (Ekainetik Irailera) / Horario verano (Junio - Septiembre)

Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes: 09.30 - 13.30

## ERANDIO BUSA / AUTOBÚS URBANO

T. 901 101 366

Irteera Enekuri eta Martiartutorretik,  
orduero / Salida cada hora de  
Enekuri y Martiartutorrea.

- Astelhenetik ostiralera  
De lunes a viernes:  
7:00 - 22:00\*

- Larunbatak  
Sábados:  
7:00 - 14:00\*

\* Azken irteera / Última salida

1	IBILBIDEA RUTA	IBILBIDEA RUTA	2
	ENEKURI MARTIARTUTORREA	MARTIARTUTORREA ENEKURI	
	ENEKURI	MARTIARTUTORREA	
	FAOETA	PINUA	
	ASUA - ERLETXETA	ODIKOLANDA	
	ASUA / ZANGROIZ	MOTA	
	ETXETXIKERRA	QUIRÓN / SANITAS	
	ELEXALDE	ODIERRI ESKOLA	
	ALTZAGA - ERANDIOGOIKOA 2B	ERANDIOGOIKOA 2	
	ARRIAGA 2	ERANDIOGOIKOA 1	
	ARRIAGA 1	ELEXALDE	
	LANDETZO - IKASTOLA	LARRAURI - MENDOTZA	
	KUKULARRA	MESO 61	
	OBIETA	ITURRIBENGOA	
	LEGAZPI (METRO)	METRO ASTRABUDUA	
	ALDAIETABIDEA	LEGAZPI (METRO)	
	MESO 22	OBIETA	
	MESO / SALITURRI	LANDETZO - IKASTOLA	
	LARRAURI - MENDOTZA	KUKULARRA	
	ELEXALDE	ARRIAGA 1	
	ERANDIOGOIKOA 1	ARRIAGA 2	
	ERANDIOGOIKOA 2	ALTZAGA - ERANDIOGOIKOA 60	
	ODIERRI ESKOLA	ELEXALDE	
	QUIRÓN / SANITAS	ASUA / ZANGROIZ	
	UPV / EHU	ASUA - ERLETXETA	
	MARTIARTUTORREA	BILBO - PLENTZIA 25	
		FAOETA	
		ENEKURI	

## BIZKAI BUS

T. 902 222 265  
www.bizkaia.net

## METRO BILBAO

Calle Navarra, 2 - 48001 Bilbao  
T. 944 254 025  
www.metrobilbao.net  
info@metrobilbao.net

## TAXI

**Geltokiak / Paradas:** Obieta, 8; Consulado de Bilbao, 17.

### Radio Taxi Femade Erandio

T. 944 800 909

### TAXI: Javier de la Fuente

T. 686 573 973

## TXALUPAK / BOTES

### Boteros de Erandio-Axpe

Jose Luis Goyoaga etor., s/n  
Zerbitzua / Servicio: 5:30 - 21:30  
Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes



DESKARGATU GIDA ZURE TELEFONOAN  
DESCARGATE LA GUÍA EN TU TELÉFONO

**Erandio**  
**UDALA**  
**AYUNTAMIEN**

